XEDAPEN OROKORRAK

OSASUN SAILA

1618

ERABAKIA, 2013ko martxoaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluarena, 2013. urtean zehar, osasun-arloan eta irakaskuntzan zerbitzuak jasotzeagatik ordaindu beharra duten hirugarrenei kobratuko zaizkien tarifak onartzen dituena.

Entitate publikoko zerbitzu-erakundeek egun badituzte tarifa batzuk, eta, hain zuzen ere, zerbitzu-erakunde horien bidez osasun-arloan edo irakaskuntzan zerbitzuak emandakoan, tarifa horiek erabiltzen dituzte hirugarrenei zerbait kobratu beharra dagoenean. Hala ere, ikusi da tarifa horiek 2013ko ekitaldirako finkatu beharra dagoela.

Ildo horretatik, gogoratu behar da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ente Publikoaren estatutu sozialetan (azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua) eskumen-multzoa ematen zaiola erakunde zentralari, eta, eskumen horien artean daude irizpide orokorrak zehazteko gaitasuna eta prezioen politika proposatzekoa (12. artikulua, 4.e idatzi-zatia).

Hortaz, Osakidetza–Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren zuzendari nagusiak tarifen inguruan aurkeztutako proposamena ikusita, eta Administrazio Kontseilu honek dituen eskumenak baliatuta (Osasun-arloa antolatzeko 8/97 Legearen 22. artikuluko 1. eta 2. puntuak), erabaki hau hartu da

ERABAKIA

Lehenengoa.– Onartu egiten dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan 2013ko ekitaldian aplikatuko diren tarifen zenbatekoak, ordaindu beharra duten hirugarrenei zerbitzua jasotzeagatik kobratu beharrekoak, betiere erabaki honetan kontzeptuka ezarri diren ildoen arabera sailkatuta.

Erabakia eragingarria eta jendearentzat jakina izan dadin, betekizun bakarra dago: tarifa-liburua argitaratu behar da eta ordaindu beharra dutenentzat eskuragarri jarri.

Bigarrena.– Honako hauek izango dute tarifak ordaindu beharra: irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren IX. eranskinean zehaztutako egoeretarik edozeinetan dauden pertsona fisiko zein juridiko guztiek (1030/2006 Errege Dekretua, Osasun Sistema Nazionaleko ohiko zerbitzuen zorroa eta berau eguneratzeko prozedura ezarri zuena). Kontuan hartu behar da emandako zerbitzua fakturatutakoan orduantxe sorraraziko direla tarifak.

Tarifa hauek honako hauei ere aplika dakizkieke: EBko herrialdeetako, Europako Ekonomia Esparruko eta Suitzako aseguratu edo onuradunei –baldin eta bizilekua Espainian ez badute–, bai eta gizarte segurantzaren arloan Espainiarekin bitariko itunak sinaturik dituzten herrialdeetako aseguratu eta onuradunei.

Hirugarrena.– Ente Publikoko zuzendari nagusiaren eginkizuna izango da egin beharreko jardun guztiak egitea, zerbitzu-zorroan prestazio berriak sartzeko, aurkeztutako egituraren osagarri. Halaber, medikuntzan eta kirurgian fakturazio berezia izan dezaketen prozedura berriak zeintzuk diren definitu behar du, prozedura horien osagaiak zehaztuta, eta horiek dakartzaten gastuak xehakatuta; halaber, prozedura horietatik kanpo dauden proba diagnostikoak eta tratamenduen aparteko probak zeintzuk diren ere zehaztu behar du.

Laugarrena.– Ente Publikoari baimena ematen zaio bestelako hirugarrenekin hitzarmenak edo akordio partikularrak negoziatu eta gauzatzeko, erabaki honetan jasotako zerbitzuak ematea helburu hartuta. Halakoetan, prezio-baldintza onuragarriagoak ezarri ahal izango dira, honako baldintza hauen arabera:

a) Osasun Sailaren eskaera guztiak bete ondoren, bestelako zerbitzuak eskaintzeko modua eduki behar da.

b) Sistema publikoarekiko elkartasun-printzipioa errespetatu behar da, sistemarekin zerikusirik ez duten hirugarrenei ematen zaizkien zerbitezuak diru publikoarekin ez ordaintzeko.

c) Ente Publikoak jardun horretan duen interesa justifikatu behar da, irizpide objektiboak erabilita:

● Bezeroen ezaugarri espezifikoak (erakunde publikoak, gizarte-erakundeak, irabazi-asmorik gabekoak).

● Ekoiztu beharrekoaz gain, gehiagorako gaitasuna ematen duten aparteko egoerak.

● Negozio-bolumena.

Puntu honetan adierazitako hitzarmenak edo berariazko erabakiak, betiere, aipatutako puntuak aztertzen dituen justifikatze-memoriarekin batera proposatuko dira, eta zuzendari nagusiak sinatu beharko ditu, baldin eta hitzarmen edo erabakiok Ente Publikoaren erakunde guztiak edo Enteaaren zerbitzu-erakunde bat baino gehiago lotzen badituzte.

Hitzarmena edo berariazko erabakia, dakarren lotura esklusiboa denean, dagokion erakundeak berak sinatuko du; dena dela, Ente Publikoaren erakunde zentralak baimena eman behar du aldez aurretik, estrategia-planarekiko koherentzia eta egokitasuna lortzeko beharrezko diren baldintzak bermatuta egon daitezen. Zuzendari nagusiak eman beharreko jarraibideak eman ditzake, erabaki hau eragingarria izan dadin.

Erabaki hau argitaratzen den egunetik aurrera, indarrean dauden hitzarmenetan ezarritako kopuruak eguneratu eta egokitu egingo dira –hala behar izanez gero– hemen ezarritako zenbatekoen arabera; dena dela, prezio-baldintza hobeak ere jar litezke, betiere puntu honetan gorago xedatutakoa betez gero.

Bosgarrena.– Baimena ematen zaio Ente Publikoaren zuzendari nagusiari talde jakin eta zehatz batzuen inguruan hitzarmen bereziak sina ditzan; horrelakoetan, dena delako taldeko pertsona edo onuradun bakoitzeko hilero/urtero zenbateko bat kobratuta emango da asistentzia sanitarioa.

Seigarrena.– Baimena ematen zaio Ente Publikoaren zuzendari nagusiari erabaki honetan zehaztu gabe geratu diren egoeretarako behin-behineko tarifa berriak ezar ditzan, arrazoitutako ebazpen bidez, eta betiere baliabideak hobeto erabiltzeko eta kudeatzeko abagune egokia bada edo egoera estrukturalak hala eskatzen badu. Tarifa horiek Administrazio Kontseiluak aztertuko ditu eta gehienez ere bi hilabeteko epean berretsiko.

Zazpigarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Erabakia argitaratzen den egunetik aurrera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren zerbitzu sanitarioetako erakunde guztietan interesatuen eskura jarri behar da Ente Publikoaren tarifa-liburua –osasun-zerbitzuak hartzeagatik ordaindu beharra duten hirugarrenei eskatu behar

zaizkien tarifena, alegia–. Aplikatzekoak diren zenbatekoen arabera egongo da eguneratuta, gainera. Halaber, honako web orri honetan argitaratuko dira:

http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-ckproc05/es/contenidos/informacion/libro_tarifas/es_libro/tarifas.html

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
JON DARPON SIERRA.